



ERKOREKA GERBASIO, Josu

HAEEko zuzendaria  
Wellingtongo dukea, 2  
01010 Gasteiz  
J-Erkoreka@ivap.es

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 97-112]

---

# Euskararen erabilera Administrazio Publikoaren barne harremanetan

(The use of the Basque language in the internal relationships within  
the Public Administration)

---

**E**uskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren baitan elebiduntasuna sustatu nahi izateak galdera batzuk sortarazten ditu: muga al dezake Administrazioak bertan diharduteren adierazpen askatasuna, noiz zein hizkuntza erabili behar duten ezarriz? Zilegi al da honek zenbait esparrutan euskara bakarrik erabiltaraztea? Zer diote honi buruz EAeko legeriak eta auzitegiek?

**Z**a voluntad de promover el bilingüismo en el seno de la administración de la Comunidad Autónoma Vasca suscita una serie de preguntas: ¿pueden las administraciones limitar la libertad de expresión de sus trabajadores especificando los casos en los que se ha de emplear una lengua? ¿Es posible valerse exclusivamente del euskara en algunos ámbitos? ¿Qué establecen al respecto la normativa y jurisprudencia de la CAV?

**Z**a volonté de promouvoir le bilinguisme au sein de l'administration de la Communauté Autonome Basque suscite une série de questions: les administrations peuvent-elles limiter la liberté d'expression de ses travailleurs en spécifiant les cas dans lesquels on doit utiliser une langue? Est-il possible de se servir exclusivement du basque dans certains milieux? Sur quoi se basent les normes et la jurisprudence de la CAB?



**1. Sarrera. 2. Administrazioan dihardutenen adierazpen-askatasuna urratzen al du, langile direnez bete behar dituzten eginkizunetan erabili behar duten hizkuntza arautzeak?:** 2.1. Adierazpen-askatasunak adierazi nahi dena zein hizkuntzatan azalduko den aukeratu ahal izatea darama bere barnean. 2.2. Administrazioetan diharduten langileen adierazpen-askatasunaren mugak. 2.3. Legezkoa al da, hain zuzen, Administrazioak bertan dihardutenen adierazpen-askatasuna mugatzea, noiz zein hizkuntza erabili behar duten ezarriz? 2.4. Administrazioako lan-hizkuntza arautzeak ez du bertako langileen adierazpen-askatasuna urratzen. 3. **Zilegi al da Konstituzioa eta Estatutuaren ikuspuntutik, legez, zenbait esparrutan Administrazioetako langileei euskarak bakarrik erabiltaraztea?:** 3.1. Konstituzio Auzitegiaren epai 82/1986, ekainaren 26koak Euskararen Legearen 8.3. artikuluari buruz esandakoa. 3.2. Konstituzio Auzitegiaren 337/1994 Epaiak, abenduaren 23koak Kataluniako Hizkuntza Normalkuntzari buruzko 1983ko apirilaren 18ko Legearen 20. artikulua inguruan esandakoa. 3.3. Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiaren jarrera. 3.4. Auzitegi Gorenaren 1999ko maiatzaren 24ko Epaiak, Aizarnazabalgo Udalaren Euskara Ordenantzei buruzkoa. 4. **Zer egin izan da gaur arte Euskal Autonomia Erkidegoan administrazioen euskararen erabilera arautzeko?:** 4.1. Hizkuntza bat ofiziala izateak, ez dakar, berez, Administrazioaren jarduerara osoa hizkuntza horretan derrigorrez egin beharra. 4.2. EAEko kasuan, zer aurreikusten du indarrean dagoen legeriak? 5. **Azken iruzkina.**

## 1. Sarrera

Aspaldikoa da euskalzaleen artean euskararen erabilera urriarekiko kezka. Eta iraganean —gure hizkuntza baztertua ez ezik jazarritua ere bazenean— hitzunen axolagabekeria hori arduratzekoa bazen, egun, estatus ofiziala lortu duenez geroztik euskarak erakundeen babesaz gozatu dezakeen honetan, are larriagoa gertatzen da erabilerak aurrera ez egitea. Babes ofiziala, ikusten denez, ez da nahikoa hizkuntza bat benetan gara dadin; ez da nahikoa hitzunik bere ahora eta idazleak bere lumara eraman dezan. Aita Villasante ere fidagaitz agertzen zitzaigun duela hamar urte, sasoi hartan euskarari zabaltzen zitzaizkion ate berriak erabilera benetan bizkortuko ote zuten aztertzerakoan: "Aje edo ahulezia hau du, nabariki, euskarak: guti hitzegin ohi dela. Eta sendabidea sustraitik ipini nahi baldin bada, hortik hasi behar. Ez dut ukatuko azken urteotan

euskararen alde sortu den «boom» honekin zerbait irabazi ez denik, baina ez naiz gehiegi fido. Denborak esango du axaleko moda ote zen edo zenbaiterainoko gizentasuna zuen joera horrek..."<sup>1</sup>.

Gaur, hamarkada bat geroago datu ofizialek erakusten ematen dutenez, euskararen ezaguerak Euskal Autonomia Erkidegoan gora egin badu ere, erabilerak ez omen du neurri berean aurrera jo. Gaitz zaharra beti gaizto. Anjel Lertxundi idazlea ere, egoera ikusirik, larri agertu izan zaigu oraintsu eta gaelikoaren adibidea gogoratu behar ote den galdetu du erabilera-maila eskasaren arazoari behar bezalako arreta eskaini diezaioگون<sup>2</sup>.

Euskararen erabilera areagotzea, ordea, ez da gauza erraza. Orain baino lehenago ere adierazi izan dudanez, hizkuntza baten erabilera ez da, euria zerutik bezala, berez datorren zerbait<sup>3</sup>. Aldiz, aginte publikoen eta gizarte-ekimenaren jarduerara sutsu eta eraginkorra behar da egoera ahulean dagoen edozein berbetaren erabilerari indarra emateko. Eta gizarte-mailan, oro har, horrela izaki, are beharrezkoagoa da ekimen tinkoa erabileraren bultzakada euskara mendez mende baztertu duen Administrazioan gauzatu nahi bada.

Ekinbidea beharrezkoa izango da, bai, baina... nola bideratu daiteke jarduerara hori? —galde dezake irakurleak—; zeintzuk dira horretarako har daitezkeen neurri egokiak? Horra hor benetako koska. Zer egin, nola jokatu, zein neurri hartu euskararen erabilera bizkortzeko? Beharren eta behar horri nola erantzun ez jakitearen arteko etena, Villasantek ere arazotzat hartzen zuen arestian aipatu dugun liburukian: "...euskaraz mintzatzera bultzatzeko zerbait beharko litzateke asmatu —zioen Gernikako frantziskotarrak— zeren hil edo biziko gauza baita hizkuntzarentzat, eta hori gabe beste erremedio guztiak jai daukate..."<sup>4</sup>.

Funtsean, eta asko laburtuta, bi eratakoak izan daitezke hizkuntza baten erabilera indartzeko har daitezkeen neurriak: hitzunik euren kabuz erabilerara erakarriko dituzten neurri sustatzaileak eta juridikotasunaren eragin-indarrean oinarrituz, zabaldu nahi den hizkuntza hitzun horiei erabiltaraziko dieten arauak. Gizarteari begira, sustapena da, ezelako zalantza barik, erabilera indartzeko jarrai daitezkeen biderik eraginkor eta erosoena; baita norbanakoen eskubideekiko begirunerik handiena islatzen duena ere. Administrazioari dagokionez, berriz, neurri

1. VILLASANTE, Luis. Euskararen auziaz. Estella: 1988; 32. or.

2. Tolosako Galtzaundi foroan, 1999ko maiatzaren 27an emandako hitzaldian.

3. ERKOREKA, Josu Iñaki. Euskara Euskal Administrazioan; erabilera arautzeari aurpegi emateko bideak. In: Eleria aldizkaria, 0. zenbakia; 36. or.

4. VILLASANTE, Luis. Euskararen auziaz, ...aip. lib.; 33. or.



sustatzaile eta pizgarriak baztertu gabe, hizkuntzen erabilera arautzea da, nire ustez, Administrazioaren jardunean hizkuntza baten presentzia bultzatzeko modurik egokiena.

Baina Administrazioak hizkuntzen erabileran esku hartzeak, nork zein hizkuntzatan jardun behar duen zehaztuz, arazo juridikoak sor ditzake. Hiztunaren adierazpen-askatasuna neurri ez-onargarrian murriztu dezake alde batetik eta bestetik, Konstituzioak eta Estatutuek marrazten duten hizkuntza-eredua bortxatu dezake. Hurrengo lerroetan, bada, bi gai hauek izango ditugu aztergai; eta horiek ikusi ostean Euskal Autonomia Erkidegoko Legeriak euskararen administrazio-barneko erabilerari buruz xedatzen duena aztertzeari ekingo diogu.

## **2. Administrazioan dihardutenean adierazpen-askatasuna urratzen al du, langile direnez bete behar dituzten eginkizunetan erabili behar duten hizkuntza arautzeak?**

### **2.1. Adierazpen-askatasunak adierazi nahi dena zein hizkuntzatan azalduko den aukeratu ahal izatea darama bere barnean**

Adierazpen-askatasunak ez du babesten, bakarrik, hiztunak eman nahi dituen mezuen eduki materiala. Mezu horiek emateko erabiliko duen hizkuntza aukeratu ahal izatea ere funtsezko askatasun honen osagai da. Adierazpen-askatasunak, haatik, adierazitakoaren edukia eta adierazpena egiteko erabiliko den bitartekoa edo kodea, biak barneratzen ditu. Hizkuntza Zuzenbidearen esparruko doktrinarik aipatuena bat dator honetan<sup>5</sup>. Santiago Petschenek argi eta garbi dioenez "...con la libertad de expresión no solamente se protege el contenido de lo que se expresa, sino que se salvaguarda también la forma. La expresión, si es libre, puede hacerse en la lengua que sea. Si se impone un idioma no hay libertad de expresión"<sup>6</sup>.

Berez eta urrunago jo barik ere, arrazoizkotzat jo daiteke adierazpen-askatasunak, herritarren iritzia eta burubideak oztoporik gabe zabaldu ahal izateaz gainera, horretarako erabiliko den hizkuntza aukeratzeko ahalmena ere barnean eramatea. Alde batetik, hizkuntza bat nahitaez erabili beharrak osoan murriztu dezakeelako norbanakoen gaitasuna, aburuak, pentsabideak eta, oro har, mezuak, behar bezala, ñabardura eta xehetasun guzti-guztiekin aditzera emateko. Baina bestetik, askatasun mugatua litzatekeelako, nola edo hala, egikaritzeko orduan behar-beharrezkoak dituen tresna edota baliabideak aukeratzeko ahalmena berarekin ez daramana.

Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordea ere uste honetakoa bide da. 1993ko martxoaren 31n eman zuen iritzian adierazpen-askatasunaren kontrakotzat hartu zuen, Kanadako Quebec-en 1988ko abenduaren 22ko Legeak frantsesaz beste hizkuntzetan iragarki komertzialak egiteko ezarri zuen debekua.

Espainiako Estatuan, Konstituzio Auzitegiak ez du, gaur arte behinik behin, gai honen inguruan beren-beregizko iritzirik eman. 201/1997 Epaian, azaroaren 25ekoan, esku-eskura izan zuen bere doktrina finkatzea, baina uko egin zion aukerari. Funtsean, epai horretan Terueleko espetxean atxilotuta zegoen euskal preso baten errekurtsioa aztertzen da, bere familiarekin telefonoz izan zuen elkarhizketa batean euskaraz hitzegitea debekatzeko hango arduradunek hartu zuten erabakiaren kontra. Presoak, besteak beste, erabaki horrek familia-intimitatearen eta adierazpen-askatasunaren funtsezko eskubidek urratzen zituela argudiatzen zuen bere helegitean, azken hori — adierazpen-askatasuna, alegia— "...entendido como derecho a utilizar su lengua propia...". Errekurtsio-egilearentzat, ikusten denez, hizkuntza aukeratu ahal izatea, adierazpen-askatasunaren edukietan txertatzen da bete-betean. Goi auzitegiak, ordea, ez dio alegazio honi erantzun espresurik eman<sup>7</sup>. Erabakiak presoaren familia-intimitatea urratzen duela adierazi zuenez, bertan behera utzi zuen gainerako alegazioen azterketarekin aurrera jarraitzea.

5. MILIAN Y MASSANA, A. Derechos lingüísticos y derechos fundamentales. In: Herri Arduralaritzazko Euskal Aldizkaria, 30. zbk. 1991; 97. or.
6. PETSCHEN, S. Entre la política y el derecho. La Carta europea de las lenguas regionales o minoritarias. In: Revista de Estudios Políticos, 66. zenbakia. 1989. urtea; 133. or. Baietzapen hau euren adierazpenak hizkuntza gutxituetan egin nahi dituztenei zor zaie batik bat, baina bestelakoan artean ere ez dira falta. Jorge de Esteban Konstituzio Zuzenbideko katedradun ezagunak oraintsu esaten zuena jarriko dugu horren adibide: adierazpen-askatasunak, zioen irakasleak, "...no sólo comporta el poder de decir lo que uno quiere, sino poder decirlo en el idioma oficial de España..." (ESTEBAN, Jorge de. Los hechos diferenciales y el Foro de Babel. In: El Mundo. 1999ko maiatzaren 31; 12. or.)
7. Esan beharrekoa da, ordea, kasu honetan Auzitegiak ez zuela, agian, gaiaren fondoan erabaki behar izango, norbere hizkuntzan jardun ahal izatea Lege positiboak espresuki aitortzen dielako presoei, ahoz zein idatziz "...con sus familiares, amigos y representantes acreditados de organismos e instituciones de cooperación penitenciaria..." (ikus. Ley Orgánica General Penitenciaria delakoaren 51.1 artikulua)





Gipuzkoako Foru Aldundia.

## 2.2. Administrazioetan diharduten langileen adierazpen-askatasunaren mugak

### 2.2.1. Langileen adierazpen askatasunaren mugak oro har

Konstituzio Auzitegiaren doktrina errepikatuaren arabera, adierazpen-askatasunak muga bereziak izan ditzake lan-kontratu bidez enpresa batekin lotuta dauden langileen kasuan. Muga berezi horiek, jakina, aditzera eman nahi dena enpresari buruzkoa denean gertatzen dira batez ere, eta langileak eta ugazabak elkarri zor dioten leialtasuna dute oinarri:

“...el contrato entre trabajador y empresario —esan ohi du maiz goi-auzitegiak— genera un complejo de derechos y obligaciones recíprocas que condiciona, junto a otros, también el ejercicio del derecho a la libertad de expresión, de modo que manifestaciones del mismo que en otro contexto pudieran ser legítimas, no tienen por qué serlo necesariamente en el ámbito de dicha relación. Surge, pues, en el ejercicio del derecho constitucional un «condicionamiento» o «límite adicional», impuesto por la relación laboral y que deriva del principio de buena fe entre las partes

en el contrato de trabajo al que éstas han de ajustar su comportamiento mutuo”.

Maila zehatzagoan, Konstituzio Auzitegiak ontzat hartzen du, bereziki, langileen adierazpen-askatasuna neurri batean murriztea, enpresaren jarraipenak zenbait datu ezkutuan gorde beharra eskatzen duenean eta irakaskuntza-zentro pribatuetako irakasleek idearioa errespetatzeko duten beharraren inguruan<sup>8</sup>. Hori bai, funtsezko eskubideak gure antolamendu juridikoan duten lehentasunezko lekuari jarraiki, langilearen adierazpen-askatasunaren murrizketa horrek enpresaren jarduera arrunta bermatzeko ezinbestekoak diren neurrietan agortu beharko du. Auzitegiaren beraren hitzetan, “...esa modulación sólo se producirá en la medida estrictamente e imprescindible para el correcto y ordenado desenvolvimiento de la actividad productiva...”<sup>9</sup>. Kasuan-kasuan, beraz, jokoan dauden ondasun juridikoak kontuan hartu, neurtu, ponderatu eta gero erabaki beharko da enpresaren interesa eta langileekiko ahalmenak —horiek ere, Konstituzio Auzitegiak esan bezala “...son expresión de derechos constitucionales reconocidos en los artículos 33 y 38 CE...”<sup>10</sup>— ala langilearen adierazpen-askatasuna nagusituko den.

8. Ikus Epai 106/1996, ekainaren 12koa.

9. Besteak beste, Auzitegi Konstituzionalaren ondorengo epaiak: 120/1983; 88/1985; 1/1988; 126/1990; 4/1996; 186/1996 eta 57/1999, apirilaren 12koa.

10. Ikus, besteak beste, 57/1999 Epaia, apirilaren 12koa.

### 2.2.2. Bereziki, Administrazioiko langileen adierazpen-askatasunaren mugak

Enpresa pribatukoa barik Administrazioiko behargina denean adierazpen-askatasuna egikaritu nahi duena, oreka-puntu berezia bilatu beharra dago langilearen eskubidearen eta enpresaren antolakuntza-ahalaren artean, ezin baitaiteke Administrazioa edozein enpresarekin parekatu.

Alde batetik, Administrazioaren baitan jarduteak zabaldu egiten ditu langilearen adierazpen-askatasunaren luze-zabalerak. Konstituzio Auzitegiak esan izan duenez, Administrazioak, bere eginkizunek duten interes publikoaren argitan, ezin dezake funtzionarioaren adierazpen-askatasuna mugatu eskubide hori egikaritzuz funtzionarioaren asmoa zerbitzu publikoaren akatsak, okerrak eta iruzurrak salatzea bada. Nola edo hala, beraz, enpresa pribatukoarekin alderatuz, zerbitzu publiko batean jarduteak, bere adierazpen-askatasuna indartzea dakarkio Administrazioiko langileari. Doktrina hau, 1/1998 Epaian, urtarrilaren 12koan agertzen zaigu, besteak beste. Epaia horretan, goi-azitegiak esaten du, berez, funtzionarioa bertako langilea denez gero Administrazioari leialtasuna zor badio ere, horren ondoan, babestu beharreko interes publiko argia ere badagoela zerbitzu publikoa zuzena, eraginkorra eta ahalik eta baldintzarik merkeenetan emateko, eta bigarren hori, lehenbizikoaren gainera jarri behar dela:

“...en tanto en cuanto el contenido de la expresión se refiere a irregularidades en un servicio público y de público interés, la posible oposición entre el deber contractual de buena fe y el derecho constitucional de libre expresión o información, queda notablemente difuminada...”

Kasu hauetan bada, ugazabarekiko leialtasunaren eta zerbitzu publikoarekiko leialtasunaren artean Auzitegiak bigarren honen alde egiten du inolako zalantza barik: “...existiendo un posible conflicto entre la lealtad debida a la empleadora y la igualmente debida a la administración titular del servicio de transporte, al interés público, en suma, el demandante de amparo no obró ilícitamente si se comportó de modo que prevaleciera este último...”

Bestetik, ordea, Administrazioan, enpresan ez diren arrazoi bereziak daude bertan dihardutenen adierazpen-askatasuna mugapean jartzeko. Konstituzioak, besteak beste eraginkortasunaren eta hierarkiaren printzipioekin bat eginez jardun beharra ezartzen dio Administrazioari eta printzipio horiek gauzatzeak, nola edo hala, langileen adierazpen-askatasuna

murritztea eska dezake zenbait kasutan. Militarren kasuan argi eta garbi gertatzen da hori. Horrela aldarrikatu dute behintzat Europako Giza Eskubiden Epaitegiak bere 1976ko ekainak 8ko Epaian, eta baita Konstituzio Auzitegiak berak ere<sup>11</sup>. Azken honek, poliziari buruz ere doktrina bera ezarri du. Bere esanetan, “...las altas misiones que el art. 104-1 CE atribuye a sus miembros se pondrían en peligro si se considerasen amparadas por el derecho a la libertad de expresión aquellas críticas que fueran verdidas por los mismos sin la mesura necesaria para no incurrir en una vulneración del respeto debido a sus superiores ni atentarse contra el buen funcionamiento del servicio y de la Institución...”<sup>12</sup>.

Egoera eta estatus ezberdinak dituzten arren, ez militarrek, ezta poliziak ere ez diren gainontzeko funtzionarioen kasuan ere, eraginkortasunaren eta hierarkiaren printzipioak errespetatu beharra dagoenez, bi hastapen hauek muga izan daitezke adierazpen-askatasunarentzat. Konstituzio Auzitegiaren 69/1989 Epaia, apirilaren 20koak, dioenez, funtsezko askatasun hori egikaritzearen ikuspuntutik funtzionarioen eta herritarren egoerak elkarrengandik gero eta hurbilago badaude ere, ezin daitezke erabat parekatu; eta hori, hain zuzen ere, haiek, azken hauek ez bezala, eraginkortasunari eta hierarkiari men egin behar dietelako: “...Ciertamente es (...) que la situación del funcionario en orden a la libertad de expresión (...) es hoy en día mucho más próxima que antaño, a la de cualquier ciudadano (...) Pero no lo es menos que el art. 103.1 de la Constitución introduce un principio de jerarquía en el ámbito de las relaciones internas de la Administración, que subraya el art. 104.1 por lo que se refiere a las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad, al señalar su dependencia del Gobierno...”

Hemen ere egoerak banan-banan aztertzea eskatzen du Konstituzio Auzitegiak, eta kasu bakoitzean erabaki behar dela dio funtzionarioen adierazpen-askatasunari ezarri nahi zaizkion mugak zilegi eta neurrikoak diren ala ez.

### 2.3. Legezkoa al da, hain zuzen, Administrazioak bertan dihardutenen adierazpen-askatasuna mugatzea, noiz zein hizkuntza erabili behar duten ezarrit?

Gorago ikusi dugunez, adierazpen-askatasunak mezua eta bitartekoa edo kodea

11. Bere 371/1993 Epaian esan duenez, “...el legislador puede establecer límites específicos al derecho de libre expresión, de índole procedimental o sustantiva, que quedarán justificados cuando esos límites respondan a los principios primordiales y los criterios esenciales de organización de la institución militar, que garanticen no sólo la necesaria disciplina y sujeción jerárquica, sino también el principio de unidad interna”.

12. Ikus, besteak beste, 81/1983 eta 270/1994, urriaren 17koa.

**“ Zilegi da Legeak administrazioetan dihardutenak hizkuntza jakina erabiltzera behartzea. Administrazioko lan-jardunean dabilenak, erakundearen mezuak bideratzen ditu dagozkion zereginak burutzerakoan, eta ez bere nortasun pribatuaren edota bere pentsabide politikoaren agerpen-aitorpenak ”**

babesten ditu. Hori jakinik, Konstituzio Auzitegiaren doktrinaren argitan kasuan kasuko egoera ponderatu beharra dagoela kontuan hartzen badugu Administrazioak langileen adierazpen-askatasunean sar ditzakeen mugak zilegiak diren jakiteko, honako galdera datorkigu burura: zein neurritan murriztu dezake Administrazioak bere langileen adierazpen-askatasuna, lanari dagozkion eginkizunetan bitarteko edo kode jakina erabiltzera behartuz? Ba al du, azken batean, langileari lan-arazoetarako hizkuntza jakin bat erabilatarazterik?

Europako Giza Eskubideen Batzordeak 10650/83 zenbakidun errekurtsuari erantzuteko hartu zuen erabakian adierazi zuen erakunde publiko batek bertan gai ofizialetan dihardutenei hizkuntza jakina erabiltarazteak ez duela horien adierazpen-askatasuna urratzen.

Errekurtsio-egileak Brusela Handiko sei udalerrri periferikoetako gizartekintzarako zentru publikoetako zinegotziak ziren. Sei udalerrri hauek *Hal-Vilvorde* izeneko eskualdean sartuta zeuden eta eskualde horretan alemana da hizkuntza ofiziala. Bere lurraldean, ordea, frantses hizkuntzako hainbat biztanle dago eta euren artekoak ziren errekurtsioa aurkeztu zutenak.

Helegitean esaten zutenez, iraganean ez bezala, 1983ko maiatzaren 24az geroztik udaleko batzarretan alemanez hitz egitera behartuta zeuden, frantsesa erabiltea erabat debekatzeko zitzaielarik. Horrek, euren ustez, adierazpen-askatasuna aldarrikatzen duen Europako Giza Eskubideen Hitzarmenaren 10. artikulua urratzen zuen. Batzordea, aitzitik, ez da aburu berdinekoa. Bere ustez:

“Hitzarmenak (Europako Giza Eskubideei buruzkoak) ez die bermatzen hautatuei, euren aukerako hizkuntza erabiltzeko eskubidea, izaera publikoko zerak diren udaletako batzarretan hitz egin eta botoa emateko. Batzar hauetako prezeduretan parte hartzea, udalerriei aitortzen zaien autonomiaren baitan kokatzen da eta beraz, zuzenbide pribatuko jardueretatik kanpo kokatzen den zerbait da”

Ikusten denez bada, zeregin publikoak betetzeko orduan —beste kontua litzateke jardun pribatua—, zilegi da Legeak administrazioetan dihardutenak hizkuntza jakina erabiltzera behartzea.

#### 2.4. Administrazioko lan-hizkuntza arautzeak ez du bertako langileen adierazpen-askatasuna urratzen

Adierazpen-askatasunaren bihotz-muina, inoren oztopo, eragozpen edota debekurik gabe norbere iritziak, usteak eta burubideak azaldu ahal izatean datza. Administrazioko langilea, ordea, bere lana betetzen duenean ez da aburuak eta iritzi propioak ematen ari. Aldiz, izatez bereak ez diren mezuak ematen ari da; baizik, Administrazioaren edo, zehatzago esateko, Administrazioko organo jakin baten mezuak, hain zuzen ere. Horregatik, beldurrik gabe baieztatu daiteke bulego publikoetako langileak bere lana aurrera ateratzeko zerbait idatzi edo berba egiten duenean, ez duela, berez, adierazpen-askatasuna egikaritzen.

Administrazioko barne-lanean funtzionarioak eman behar dituen mezu eta komunikazioek ez daukate zerikusirik bere nortasuna baldintza askeetan garatu ahal izateko norbanako edo gizaki orok nahitaez behar duen adierazpen-esparru jarearekin; ez eta demokrazia guztietan ezinbestekoa den iritzi, aburu, uste eta ikuspuntu ezberdinen joan-etorri askearekin ere. Aitzitik, Administrazioko lan-jardunean dabilenak, berez, erakundearen mezuak bideratzen ditu dagozkion zereginak burutzerakoan, eta ez bere nortasun pribatuaren edota bere pentsabide politikoaren agerpen-aitorpenak. Langileari bere lana hizkuntza jakin batean egin dezala behartzean, beraz, eta

Konstituzio Auzitegiaren berbak erabiliz, ez dago jokoan, eta ez da arriskuan jartzen, Konstituzioaren 20. artikulua adierazpen-askatasuna aldarrikatzean babestu nahi duen "...la garantía de la opinión pública libre y del pluralismo político en un Estado democrático...". Herritar gisa burutu ditzakeen egintzetan, administrazioan barrena gertatu arren, bete-betean zor zaio errespetua funtzionarioaren adierazpen-askatasunari. Horrela litzateke, adibidez, administrazioaren aurrean bere eskubideak egikaritzen dituenean. Orduan bai, oso-osoarik mantentzen ditu bere adierazpen-askatasuna eta hizkuntza-eskubideak eta administrazioak inola ere ezingo ditu murriztu edo kolpatu.

### **3. Zilegi al da Konstituzioa eta Estatutuaren ikuspuntutik, legez, zenbait esparrutan Administrazioetako langileei euskara bakarrik erabiltaraztea?**

Arestiko idazpuruan ikusitakoaren arabera, Administrazioetako langileen adierazpen-askatasuna ez da bertan behera gertatzen, euren lanean erabiliko duten hizkuntza aukeratu ahal izatea ukatzen zaielako. Baina, adierazpen-askatasuna urratu ez arren, langile horiei euren lan-jardunean hizkuntza jakina erabiltaraztea ba ote dator bat Konstituzioak eta Gernikako Estatutuak ezarri duten hizkuntza-ereduarekin? Eta zehatzago oraindik, lan honi dagokionez, zein neurritan koka daitezke uztarri berean hizkuntza-eredu hori, eta arau bidez Administrazioetako langileei euskara bakarrik erabiltaraztea?

#### **3.1. Konstituzio Auzitegiaren epai 82/1986, ekainaren 26koak Euskararen Legearen 8.3. artikuluari buruz esandakoa**

Jatorrizko testuan, Euskararen Legearen 8. artikulua Euskal Autonomia Erkidegoko aginte publikoen jardura osoa elebitasunik simetrikoenean gauzatu behar zela xedatu eta gero —hots, euskaraz eta gaztelaniaz—, honako hau ezartzen zuen bere hirugarren puntuan:

“Gorago agindutakoa hala dela ere, udalaren gizarte-hizkuntzazko egoera dela eta, herritarren eskubideen kaltetango gerta ez

dedinean, herri-agintariek, toki-arduralaritzaren alorrean, euskara bakarrik erabili ahal izango dute”

Legeak, ikusten denez, salbuespen gisa baino ez bada ere, bidezkotzat jotzen zuen, udal mailan, lekuan lekuko egoera soziolinguistikoaren arabera eta herritarren hizkuntza eskubideak urratzen ez ziren heinean, "...euskara bakarrik erabili ahal..." izatea.

Artikulu hori Estatuko abokatuak Legearen kontra aurkeztu zuen errekurtsioan aurkatutakoen artean zegoen. Eta goi-auzitegiak Konstituzioaren kontratokat hartu zuen, bere epaian honako argudio hau erabiliz:

“...la exclusión del castellano no es posible porque se perjudican los derechos de los ciudadanos, que pueden alegar válidamente el desconocimiento de otra lengua cooficial. Pues bien, el citado art. 8.3 prevé la redacción exclusiva en euskera, sin que logre reducir su alcance la genérica salvedad de no perjudicar los derechos de los ciudadanos, ya que este precepto es una excepción a los anteriores apartados del artículo, que disponen la redacción bilingüe de disposiciones normativas, resoluciones, actas, notificaciones y comunicaciones como regla general.

Por ello, el art. 8.3 viene a ser inconstitucional por infracción de lo dispuesto en el art. 3.1 de la Constitución, en relación con la no existencia del deber de conocimiento del euskera en zona alguna del territorio del Estado, que resulta del art. 6 del EAPV”.

Behin baino gehiagotan esan izan denez<sup>13</sup>, Konstituzio Auzitegiaren pasarte honek huts nabarmena du eta, ikuspuntu juridikotik behinik behin, erabat kritikagarria da. Nekez baiezta baitaiteke «herritarren eskubideen kaltetango gerta ez dedinean» ere, Administrazioak ofiziala den hizkuntza bat erabiltzeak Konstituzioaren 3. artikulua urratzen duenik. Estatuak berak ere, diogun honetaz oharturik, ate zabalak ireki zizkien udalei 1986. urtean bertan —hots, Konstituzio Auzitegiaren epaiaren urte berean— administrazio-barneko zenbait jardura eta egintza gaztelaniaz zein erkidegoan erkidegoko hizkuntza ofizialkidean egiteko, "...conforme a la legislación aplicable y a los acuerdos adoptados al respecto por la correspondiente corporación..."<sup>14</sup>. Euskararen inguruko arauterietan sarri-sarri aurkituko ditugu aipatua

13. Ikus, besteak beste, AGIRREAZKUENAGA, Iñaki. La cooficialidad lingüística en la Administración Foral y Local del País Vasco. In: Cuestiones Particulares del Régimen Foral y Local Vasco. Oñati, 1994; 22 eta 23. orr.

14. Ikus Reglamento de Organización y Funcionamiento y Régimen Jurídico de las entidades locales, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koaren 86.1, 110.1 eta 86.2. artikulua.

bezalako paradoxak eta gertaera harrigarriak. Konstituzio Auzitegiak Euskararen Legeari ukatzen ziona, urte berean Estatuko arauteriak ontzat hartzea.

Dena den, ez gara orain horren azalpenean murgilduko. Nahikoa dugu oraingoz honako hau nabarmenaraztearekin; alegia, Konstituzio Auzitegiak ez duela onartzen aipaturiko epaian, euskaraz bakarrik gauzatuko den administrazio-jarduerarik; ez eta euskara soilaren erabilera hori herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuz ematen denean ere.

Geroztik, ordea, Konstituzio Auzitegiak ez dio jarrera honi gogor eutsi; ez da bere hartan tinko gelditu. Ondoren aipatzen dugun epaian ikusten denez, zortzi urteren buruan, goi-auzitegiak aipaturiko aburua bazterrean utzi eta zenbait autonomia-erkidegotan gaztelaniarekin batera ofizialkideak diren hizkuntzak administrazioetan «nagusi» izatea bete-betean onartzera igaro da. Beti ere, noski, hizkuntza-eskubideekiko begirunea egiaztatuta badago.

### 3.2. Konstituzio Auzitegiaren 337/1994 Epaiak, abenduaren 23koak Kataluniako Hizkuntza Normalkuntzari buruzko 1983ko apirilaren 18ko Legearen 20. artikuluaren inguruan esandakoa

Artikulu honen arabera, Irakaskuntza-zentroen eginbeharretako bat katalana adierazpide arrunt bihurtzea zen, barne- zein kanpo-eginkizunetan. Legearen esanetan, "...hacer de la lengua catalana vehículo de expresión normal...". Ikusten denez, aztergai dugun arauak ez zioen Administrazioaren atal horietan katalana hizkuntza bakarra eta besteen baztertzalea izango zenik, «arrunta» edo «ohikoa» baino. Horrek esan nahi du gaztelania ere erabil zitekeela, Legeak ez zuela bazterrean uzten; baina herritarrek eskatu ahala erabiliko zela bakarrik, hau da, herritarrek euren hizkuntza-eskubideak egikaritzuz gaztelaniara jotzen zuten heinean. Hala ere, artikulu hau errekurruta izan zen eta, azkenean, Konstituzio Auzitegiaren eskuetara heldu zen. Baina goi-auzitegiaren erantzunak ez du jarraitzen zortzi urte lehenago Euskararen Legearen 8.3. artikulua epaitzerakoan hartu zuen bidea. Oraingoan, bidezko ikusten du erkidegoan erkidegoko hizkuntza ofizialkideak, Administrazioaren barne- zein kanpo-harremanetan «ohiko» edo erabilera arrunteko egitea:

"Desde la perspectiva constitucional ningún reproche puede merecer que en los centros docentes radicados en Cataluña la lengua catalana haya de ser vehículo de expresión

«normal» tanto en las actividades internas como en las de proyección exterior (...) el adjetivo «normal» que emplea el art. 20 de la Ley en relación con los fines que ésta pretende alcanzar, sólo indica el carácter de lengua usual o habitual que se quiere otorgar al catalán en las actividades oficiales de los centros docentes..."

Konstituzio Auzitegiaren ustez, epaituriko artikuluak darabilen «normal» hori Konstituzioaren kontrakoa izango zen baldin eta herritarrekiko harremanetan bat eta bakarraren sinonimo bezala erabilia izan bazen, gaztelania erabat zokoratuz eta hizkuntza hau aukeratzen duten herritarren hizkuntza-eskubideak urratuz. Hori, ordea, ez zen horrela, berez, barne-jarduera oso-oso katalanez egitea posiblea bazen ere, Legeak herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzen zituelako Administrazioarekiko harremanetan katalana zein gaztelania aukera zezaten:

"...no entraña en modo alguno que el catalán haya de ser utilizado como lengua única en las relaciones de los ciudadanos con los centros docentes situados en Cataluña, ni en las de éstos con aquéllos, con el consiguiente desconocimiento o exclusión del castellano. Pues hemos declarado que en los territorios dotados de un estatuto de cooficialidad lingüística, los particulares pueden emplear cualquiera de las lenguas oficiales, a su elección, en las relaciones con cualquier poder público radicado en dicho territorio, siendo el derecho de las personas al uso de una lengua oficial un derecho fundado en la Constitución y el respectivo Estatuto de Autonomía, facultad de elección que se reconoce expresamente en el art. 8.1 de la Ley de Normalización Lingüística en Cataluña y que no se desconoce en el precepto cuestionado, no sólo por la necesaria conexión entre ambos preceptos de la misma Ley, sino también porque el adjetivo «normal» que utiliza el art. 20 excluye la idea de deber o imposición que justificaría la duda sobre su constitucionalidad. El mandato que contiene el art. 20 de la Ley 7/1983, de 18 de abril, no resulta pues incompatible con el carácter oficial del castellano en la Comunidad Autónoma de Cataluña, ni con el derecho a usarlo por quienes mantengan cualquier tipo de relación con los centros docentes allí situados, ya se trate de los alumnos o de sus padres y familiares..."

Ikusten dago, bada, hiritarren hizkuntza-eskubideak bermatuz gero, zilegi dela Administrazioak hizkuntza ofizialkideen artetik bat zein bestea aukeratzea bere eguneroko jarduerarako; eta on da baita ere, bi hizkuntza ofizialen erabilera simetrikoaren aldeko apustua egitea.

Baina epaiaren zentzu osoaz jabetu gaitzen, komenigarria da epaiaren boto partikularrean adierazten den tesiari arreta



eskaintzea. José Gabaldonen boto partikularrak adierazten du Konstituzioak gaztelaniarekiko ezartzen duen baldakizuna ez dela agortzen herritarrek administrazioarekiko harremanetan gaztelania erabili ahal izatean. Horrez gainera, arauen arauak eskatzen du eguneroko jardunean ere hizkuntza ofizialkidea bezalaxe, gaztelania erabilera arruntekoa izatea, katalanarekin batera jarduera guzti-guztietan erabiltzea. Bere hitzetan esanez, "...que ese carácter de lengua usual sea compatible con el uso asimismo normal del castellano tanto en los actos o avisos que hayan de expresarse por escrito como en las relaciones personales, de modo que también con normalidad puedan desenvolverse en aquella lengua, evitando que un uso excluyente pueda convertirse en separación con causa idiomática...".

Gabaldonen aburuz, bada, Konstituzioari darion hizkuntza-ereduan herritarren eskubideen babes-eremutik kanpo ere, administrazioetan, lekuan lekuko hizkuntza ofizialkidearen parean erabili behar da gaztelania beti. Baina Auzitegiak, ikusi dugunez, ez du aburu hori bere egiten. Haatik, Gabaldonen iritzia boto partikularra baino ez da<sup>15</sup>.

### 3.3. Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiaren jarrera

Bien bitartean, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusia ere poliki-poliki onartzen joan izan da Administrazioak bere jardueran, ofizialtzat jotakoen artetik egokien edo gustokoen duen hizkuntza erabiltzea; beti ere, herritarren hizkuntza-eskubideekiko errespetua bermatuz gero. Hasieran, Konstituzio Auzitegiaren 1986ko ekainaren 26ko Epaiaren ildoetatik jo zuen eta goi-azuzitegiak bezalaxe muzin egin zion, herritarren hizkuntza-eskubideak behar bezala babestu arren, zenbait administrazio-esparrutan euskaraz soilik jardun ahal izateari. Geroztik, ordea, esan bezala, ateak zabaldu zizkion aukera honi. Garden askoak ditugu, bide honetan, 1992ko otsailaren 1ekoak<sup>16</sup>. Bertan, zilegitzat jotzen zuen, Konstituzioaren ikuspuntutik, udalak bere barne- eta kanpo-jardueran euskaraz aritzeko erabakia hartzea, hots, euskarari lehentasuna ematea:

"...si bien pudiera colegirse de ello la intención de primar el euskera como vehículo idóneo de comunicación en las relaciones municipales y de potenciar su uso ad intra y ad extra de la corporación y del propio ente local, no cabe deducir de tal actitud consecuencias negatorias del castellano, percutoras de lo dispuesto en el art. 3 de la Constitución (...) La decisión de vivir y funcionar en euskera respetando los derechos lingüísticos individuales y colectivos constituye una pretensión legítima que no atenta contra el mandato constitucional, ni rebasa el ámbito de actuación que determina el art. 6 del Estatuto de Guernica y deja a salvo el principio de igualdad de todos los españoles que proclama el art. 14 de la Constitución..."

Are interesgarriagoa dugu neurri batean, goi-azuzitegiak aipatu dugun bigarren epaian adierazten duena. Bertan, legezkotzat hartzen baitu administrazioak bere barne-jardueran euskararen erabilera sustatzea ez ezik, administrazioaren lanean oraindik orain nagusi den gaztelaniaren aldeko inertiari gainez egitea. Beti, noski, herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatuz:

"...aun respetuosa de la cooficialidad lingüística, la ordenanza contiene un imperativo categórico dirigido a todos los elementos que integran el elenco municipal, exigiéndoles que siempre que sea posible, es decir, siempre que sepan hablarlo y escribirlo y estén salvaguardados los derechos de los administrados, empleen el euskera. O lo que es lo mismo, que el mundo municipal se convierta en un sujeto social euskaldún o vasco parlante, que expanda la lengua propia de la Comunidad Autónoma, priorizándola con respecto a la lengua cooficial española y alterando así la corriente de espontaneidad en sentido contrario.

A la interrogante de si es lícita tal determinación sociolingüística incorporada a la disposición general municipal habrá que responder con el beneficio de que goza la autonomía municipal puesto que el fin propuesto, que se hable en euskera, es legítimo en derecho e incluso gozan del respaldo legal cuantas medidas legítimas se adopten para su impulso e implantación..."

15. Espainiako Estatu Defensor del Pueblo delakoa ere uste honetakoa bide da. Kataluniako Hizkuntza Politikari buruzko Legearen inguruan egin dituen gomendioetan dioenari jarraiki, ez du ontzat hartzen Administrazioen baitan katalana hizkuntza nagusia izatea eta horren ondoan gaztelania herritarrek eskatu ahala bakarrik erabiltea. Hain zuzen ere Legearen 9 eta 10 artikuluei buruz honako hauek baieztatzen ditu: "De lograr abrirse paso una interpretación similar a la que venimos señalando, (...) se produciría el tránsito ilegítimo desde una fórmula constitucional y estatutaria de bilingüismo oficial y territorial a una fórmula de monolingüismo territorial, aunque matizada, en ese estrecho margen residual que se deja al castellano, sometiendo su uso al principio de rogación por parte de los particulares..." (ALVAREZ DE MIRANDA Y TORRES, Fernando. Sugerencias y recomendaciones que formula el defensor del pueblo. UNED, Teoría y Realidad Constitucional, 2. zkia., 2. seihilabetekoa, 1998; 266. or.).

16. Ikus HAEE-IVAPen argitalpen hau: Euskal administrazio publikoetako hizkuntza normalkuntza: legeria eta jurisprudentzia hautatua. Gasteiz: HAEE, 1997; 263 eta 291 orr.

Hori bai, herritarren hizkuntza-  
eskubideekiko begirunea garrantzi bereziko  
baldintza da, eta Auzitegiak berak ere zorrotz  
jokatu du eskubide horien errespetua bermatuz.  
Bere epaietan, legezkontraktatzat hartu izan ditu  
baten baino gehiagotan udaletako ordenantzen  
zenbait artikulua, honako argudioa erabiliz: "...que  
al no haber previsto instrumentos y actuaciones  
de simultánea comprensión en euskera y  
castellano discriminan a los no parlantes de esta  
última lengua y vulneran el derecho que a éstos  
otorga el artículo 3.1. en relación con el artículo  
14 de la Constitución española..."<sup>17</sup>

### 3.4. Auzitegi Gorenaren 1999ko maiatzaren 24ko Epaiak, Aizarnazabalgo Udalaren Euskara Ordenantzei buruzkoa

Joan den ekainaren 19an, albiste harrigarria  
argitaratu zen Euskal Herriko egunkarietan. Efe  
berri agentziak zabalduko informazioari jarraiki —  
auzian parte izandakoek eurek ere ez omen zekiten  
ezer—, Aizarnazabalgo Udalak 1989. urtean onetsi  
zuen «Herri erabat euskalduna tipologiarako udal  
agintaraua»-ren kontra aurkezturiko errekurtsioan  
Auzitegi Gorenak arrazoia eman omen zion  
errekurtsio-egileari, alegia Estatuko abokatuari, eta  
Konstituzioaren 3. artikulua kontraktatzat jo omen  
zuen udalek euskara hutsez jardutea. Albistea  
kontrastatzeko nora ezean, eta notiziaren iturri  
bakarra Efe agentziak zabalduko parte zelarik,  
euskalzaleen artean alarma gorria piztarazi zuen  
berriak. Kezkak eta galderak, noizgura eta  
zenbatgura sortarazi zuen berriak: goiko lerroetan  
ikusi dugun Konstituzio Auzitegiaren 82/1986  
Epaiak, ekainaren 26koak, Euskararen Legearen  
8.3 artikulua dela-eta emandako doktrina estu-estua  
berreskuratzera ote zetorren, bada, Auzitegi  
Gorena? Konstituzio Auzitegiak 13 urte lehenago  
bezalaxe, udaletan euskara hutsez jarduteak  
Konstituzioaren 3. artikulua urratzen zuela esatera  
ote zetorren bada Auzitegi Gorena? Orduan legez,  
urraketa «...en relación con la no existencia del  
deber de conocimiento del euskera en zona alguna  
del territorio del Estado...» horretan oinarritzen ote?  
Horrela izatekotan, alferrikakoak ote ziren azken  
urteetan administrazioetan euskaraz aritzeko  
eginiko ahalegin ugariak? Harik eta Epaiaren testu  
jatorra eskuratu arte —Auzitegi Gorenaren  
idazkaritzara bertara deituta eskuratu ere—, legelari  
euskalzaleok jakinminak janda igaro genituen  
egunak.

Gaur, ordea, Epaiak ikusi eta gero, berriaren  
larria ez zela hainbesterakoa izan aitortu behar  
dugu.

Beste ezer aipatu baino lehen, aurreratu  
dezagun errekurtsioaren Agintaraua edo  
Ordenantza —Gipuzkoako Boletín Ofizialean  
argitaratu zen testuari begiratzen badiogu behinik  
behin (1989ko ekainaren 16ko Boletínaren alean,  
114. zenbakiduna)— akatsak dituen testu  
juridikoa dela. Kontu sakonagoetan sartu barik  
ere, argi ikusten da gaztelaniazko testua eta  
euskarazkoa ez direla berdin-berdinak. Are  
gehiago, atal jakinetan, bi testuen artean dagoen  
aldea ez da nolana hokoa, oso garrantzitsua baino;  
ikusn puntu juridikotik begiratuta hil ala bizikoa. Aipa  
dezagun gaztelaniazko eta euskarazko testuen  
arteko desadostasuna argi erakutsiko digun  
adibide oso esanguratsu bat. Agintarauaren  
Sarrerak, euskarazko bertsioan, honako hau dio  
bere seigarren zatian: "...Euskal Herriko herritar  
guztiek dute bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko  
eskubidea nola hitzez hala idatziz...".  
Agintarauaren atariko azalpenean jasota dagoen  
arren, eta ez xedapen juridikoak biltzen dituzten  
artikuluen artean, esaldi honek herritarren  
hizkuntza-eskubideen aitortze biribilena egiten  
du. Hau da, Ordenantzak udalaren jarduerarako  
ezar dezakeen hizkuntzen erabilera-araua  
edozein izanda ere, arau horrek herritar guztiei  
«bi hizkuntza ofizialak, nola hitzez hala idatziz  
erabiltzeko» aitortzen zaien hizkuntza-  
eskubidearen menpe izan beharko du.

Bestelakoak dira, ordea, sarreraren zati  
honen gaztelaniazko bertsioaren edukia eta  
esangura. "No obstante —dio seigarren atal  
honek—, todos los habitantes del País Vasco  
tienen el derecho a utilizar el euskara, tanto  
oralmente como por escrito". Erdarazko pasarte  
honetan, ikusten denez, euskarazkoa ez bezala,  
herritarrei aitortzen zaien hizkuntza-eskubide  
bakarra euskaraz jardutearena da. Ahoz zein  
idatziz, bai, baina aipaturiko testuaren arabera  
euskara bakarrik erabil dezake herritarrek  
udalaren aurrean. Nahita edo gura barik, kontua  
da euskarazko bertsioaren «bi hizkuntza  
ofizialak», «el euskara» soilean bilakatu direla  
gaztelaniazkoan. Bigarren honetan, bada,  
bazterrean uzten da gaztelania; desagertarazi  
egiten dute ordenantzek, herritarrek udalarekiko  
harremanetan aukeratu ditzaketan hizkuntzen  
artetik.

Agintarauak badu bestelako hutsik ere.  
Herritarren hizkuntza-eskubideak narbarmen eta  
bete-betean bortxatzen dituzten xedapenak, esate  
baterako. Horien artekoa da, besteak beste, 44.  
artikulua, non ukatu egiten baitzaie herritarrei  
udalari baimen-eskaerak zuzentzerakoan  
gaztelania erabiltea: "Obra-baimenen eskaera  
euskaraz egin beharko da eta ondorengo  
tramitazio osoa euskara hutsez burutuko da".

17. Ikus, besteak beste, 1993ko urtarrilaren 2ko martxoaren 3ko eta apirilaren 14ko Epaiak.

Herritarrak, bada, obra-baimena eskuratu nahi badu, euskaraz eskatu behar dio udalari. Honetan, ganera, bat datoz euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak; azken honek ere muga berdina ezartzen baitio herritarrari: "Las solicitudes de permiso de obra se redactarán en euskara..."

Horiek guztiak eta Agintarauak dituen antzeko beste akats batzuk ikusita, argi dago — eta honek izan beharko luke gertakizun honetatik atera beharko genukeen ikasgai nagusia— etorkizunera adi, euskararen statusari buruzko arauketak kontu eta arreta handiagoz egin behar direla. Ez, noski, euskara arautzea berez zaila delako, begi asko eta asko begira dagoelako baino, euskal erakundeek arlo horretan zer egingo berehala helegiteetan jardun eta egunkarietan titularrak lortzeko.

Nolanahi ere, Aizarnazabalgo «Herri erabat euskalduna tipologiarako udal agintaraua» araurik zehatzena, txukunena, egokiena eta teknikoki hoberena ez izateak, ez du esan nahi Auzitegi Gorenak ere gai honetan artez jokatu duenik. Aitzitik, honek ere badu koska eta ajerik. Epaiaren arlorik kritikagarriena, nire ustez, euskarritzat hartzen duen argudio juridikoaren ahulezia datza. Estatuko abokatuaren arrazoibideak gaitzesten dituenean, saiatzen da Auzitegi Gorena, zertxobait bederen, bere jarrera arrazoitzen eta ahalik eta sendoen oinarritzen. Gainontzekoetan, ordea, errekurtsioaren erasoak onartzen dituenetan, ez da somatzen Epaiaren pisuzko argudioak bilatzeko ahalegin gehiegirik; ia ia arrazoiketa barik jotzen du Konstituzioaren kontrakotzat Agintarauaren zenbait xedapen. Horrela gertatzen da, adibidez, zortzigarren artikulutik hamabigarrenera bitartekoekin: "...efectivamente —dio Epaiak artikulua horiek buruz, labur eta xur— son contrarios al artículo tres de la Constitución...". Auzitegiaren erabakiak ez dakar baieztape horri eutsiko dion gehiagoko ziorik edo zergatirik. Aipaturiko artikulua Konstituzioaren 3. artikulua urratzen dutela dio eta kito; ez du arrazoiketa hori gehiago elikatzeko beharrik ikusten. Kontua da, ordea, ez dagoela hain argi artikulua jakin horietako batzuk behinik behin Konstituzioaren 3. artikulua kontrakoak direnik. Zortzigarrena, adibidez, hots, Aizarnazabalgo Udalak Hego Euskal Herriaren lurralde-esparruaren barruan dauden beste Administrazio Publikoek nahiz erakunde ofizialei zuzendutako dokumentazioa euskara hutsez bidaliko duela xedatzen duen artikulua, ez du inongo herritarraren hizkuntza-eskubidea bortxatzen.

Auzitegi Gorenak berez Konstituzioaren kontrakotzat hartzen dituen artikuluen artetik, 31garrenari buruz bakar-bakarrik esan daiteke nire iritziz Konstituzioak marratzen duen hizkuntza-ereduaren kontrakoa dela; eta hori ere, ez xedatzen duenagatik —ez, beraz, euskara zerbitzu hizkuntza ez ezik laneko hizkuntza ere

izango dela agintzen duelako—, baizik eta gaztelania erabat baztertuz, honako hau aldarrikatzen duelako, alegia, Aizarnazabalgo Udalean eta bere menpeko erakundeetan euskara dela "...hizkuntza ofizial bakarra...". Beste hiru artikulua, hain zuzen ere honakoa xedatzen dutenak: izaera administratiboko barne-jarduerak euskara hutsez burutuko direla; Udalak izenpetzen duen kontratazio-dokumentu oro euskaraz idatzita egongo dela; eta Administrazioaren kargudunen jardura publikoan, jardura hori karguaren eginkizunen alorrekoa denean, euskara erabiliko dela, ez dira, berez, inondik eta inora ere Konstituzioaren 3. artikulua kontrakoak. Hori bai, zilegiak izan daitezten, herritarren hizkuntza-eskubideen bermaketarekin uztartuta agertu behar dute; euskararen erabilera bakarra, gaztelaniaren baztertzaila eta hizkuntza-eskubideen zapaltzaila delako indarrean dagoen hizkuntza-ereduak baztertzen duena. Eta, egia esateko, ez dago batere argi Agintarauak hori guztia ziurtatzen duenik.

#### **4. Zer egin izan da gaur arte Euskal Autonomia Erkidegoan administrazioen euskararen erabilera arautzeko?**

##### **4.1. Hizkuntza bat ofiziala izateak, ez dakar, berez, Administrazioaren jardura osoa hizkuntza horretan derrigorrez egin beharra**

Jakina denez, ofizialtasunak, balio eta eraginkortasun osoz erabili ahal izatea dakarkio hizkuntza bati. Aitzitik, ez dakar berarekin ofizialtasunez apaindutako hizkuntza administrazioen eta, oro har, aginte publikoen eginkizun guzti-guztietan derrigorrez erabili beharra. Kasuan kasuko legeriak zehaztuko du ofizialtzat jotako hizkuntzak zein erakundetan eta zein kasutan, hau da, non eta noiz, erabili beharko diren nahitaez.

Auzitegi Gorenaren 1996ko martxoaren 26ko Epaiaren eta 1997ko apirilaren 15eko Epaiaren ere, argi eta garbi adierazten da diogun hau, hots, elebitasun ofizialak ez daramala barnean Administrazioak "... argitaratzen edo izenpetzen dituen dokumentu guztiak hizkuntza ofizial bietara itzuli beharra...".

Horrela bada, hizkuntza ofizial baten erabilera ofiziala modu askotara arautu daiteke. Eta ofizialtasunaren edukia, norainokotasuna eta mugak marrazteaz arduratuko den arauak zehaztuko du, hain zuzen, administrazioek

ematen dituzten egintzen artean zeintzuk eta noiz idatzi behar diren derrigorrez hizkuntza ofizial bietan eta zeintzuk, ordea, eman daitezkeen hizkuntza bakar batean. Aipaturiko 1996ko martxoaren 26ko Epaian oso aldarrikapen esanguratsuak jasotzen dira honi dagokionez. Bartzelonako Abokatuen Elkargoaren zein egintza agertu behar den elebitan aipatzen duenean, epaiak Elkargoaren Estatutuen 5-2 artikulua aipatzen du zuzenean —hizkuntzen ofizialtasunari buruzko arauteria orokorra bazterrean utziz— eta honela dio:

“Como se advierte de la lectura de la norma estatutaria, ésta ordena efectuar al Colegio la publicación en castellano («se publicarán»), además de en catalán («también»), determinadas y concretas disposiciones y actos, sin contener cláusula alguna que permita extender la obligación a otros distintos, por lo que debemos entender que los casos que enumera tienen carácter limitativo y que, conforme a este artículo, los colegiados no pueden exigir del Colegio que realice otras publicaciones y comunicaciones generales en castellano que las indicadas”.

## 4.2. EAEko kasuan, zer aurreikusten du indarrean dagoen legeriak?

### 4.2.1. Euskararen Legearen 8. artikulua

Gure kasuan, eta arau zehatzagorik ezean, erakunde publikoek —herri-administrazioak ere tartean— euren egingidietan bete behar duten hizkuntza-erregimena, Euskararen Normalkuntzaren Legearen 8. artikuluan jasotakoa da.

Artikulu honen arabera elebitasun simetrikoa da erabilera-arau nagusia; hau da, bertan aipatzen diren jarduerak euskaraz eta gaztelaniaz, bi hizkuntza ofizialetan idatzi behar dira beti. Baina, zeintzuk dira jarduera horiek? Artikuluaren lehenbiziko atalari jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoko “...aginte publikoek emandako araugintzako xedapen edo erabaki ofizialak...”; eta bigarren atalaren arabera, aginte publiko horiek “...parte hartzen duten ekintza guztiak...”. Horretaz gainera, administrazio-jakinazpenak eta komunikazioak ere bi hizkuntzetan egon behar dute, horien hartzailleek bietatik bat aukeratzeko ez badute behintzat; hots, “...doakienek berariz Autonomia-Elkarteko hizkuntza ofizialetatik bat aukeratu dezatenean salbu...”

Horrela bada, Legearen aipaturiko 8. artikuluari jarraiki honako hauek dira EAEko administrazioetan beti elebitara burutu behar diren jarduerak:

**“ Aginte publikoen presentzia eta parte hartzea gauzatzen den une bere-beretik, gertakaririk ahulena, jarduerarik txikiena eta garrantzirik gutxienekoa ere —idatzirik jartzen bada, bederen—, elebitara burutu behar da**



- a) Araugintzako xedapenak (disposiciones normativas)
- b) Erabaki ofizialak (Resoluciones oficiales)
- c) EAEko aginte publikoek parte hartzen duten ekintza guztiak (todo acto en el que intervengan los poderes públicos de la CAPV)
- d) Jakinarazpen eta administrazio-komunikazioak, interesdunek hizkuntza bat espresuki aukeratzeko ez badute

Xedapen orokorren eta erabaki ofizialen kasuan, ez dut uste 8. artikulua ezarritako norainokotasuna zehazteak arazorik sortu behar duenik, argi baitago xedapen orokorra eta erabaki ofiziala zer diren. Beste hainbeste esan genezake administrazio-jakinazpen eta komunikazioen kasuan ere. Horien aurrean, ordea, zailagoa da zehaztea 2. atalaren esapide honek “...aginte publikoek parte hartzen duten ekintza guztiak...”, zein jarduera sartzen dituen bere baitan eta zeintzuk, ordea, kanpoan uzten. Gaztelaniazko bertsioari helduta ere, zailtasun handikoa da konkretatzea “...todo acto en el que intervengan los poderes públicos...” hori noraino hedatzen den. Erakunde publikoen jardura oso-oso sartu behar al dugu esapide horretan? Badirudi baietz, artikulua «ekintza guztiak» aipatzen baititu —«todo acto», alegia— horien artean bereizketarik edota salbuespenik bat ere egin gabe. Eta, jakina, Zuzenbidearen munduko erregelak zaharrak dioenez, «ubi lex non distinguit, nec nos distinguere debemus»; alegia, arauak bereizten ez duenean, ez da bereizketarik egin behar.

Legearen aurrekinetara jotzen badugu aginte publikoen ekintza guztiak aipatzen dituen esapide horren luze-zabalerari buruzko argiaren bila, konturatuko gara legegileak berak ere, gai honen inguruan gehiegi eztabaidu ez zuen arren, zabalera handiko esapidetzat hartu zuela hasiera-hasieratik 8.2 artikuluko hori. Maturana legebiltzarkideak, adibidez, argi ikusten zuen — eta honetan ez zion beste inork kontrakorik esan— Lege-egitasmoaren 9.2 artikulua — Legea onetsi eta gero 8.2 artikulua izango zenak, alegia— aginte publikoen ekintza guztiak aipatzen zituenean, erakunde publiko den-denak sartzen zituela barruan eta horien jarduera-mota guzti-guztiei buruz ari zela; Administrazio-barrukoei buruz eta kanpora adi gauzatzen direnei buruz:

“...ya en el apartado segundo se dice: «todo acto en el que intervengan los Poderes Públicos sites en la Comunidad Autónoma del País Vasco». Es decir, aquí se está refiriendo a todos los Poderes Públicos, a todas las Administraciones, desde el Poder Ejecutivo hasta el Poder Judicial, está definido así; (...). Por tanto, entiendo que todo acto, pues por ejemplo puede ser el acta que redacte en una Audiencia Territorial el secretario, o en una Audiencia Provincial, o en un juicio de faltas; eso es lo que entiendo yo porque ese es un acto en el que interviene un Poder Público, que es el Poder Judicial, y además está sito en la Comunidad Autónoma. Por tanto, yo es lo que entiendo que está regulando en estos momentos este Proyecto de Ley...”

Artikuluak erabiltzen dituen hitzen zentzunari begiratuta ere berdin antzeko ondorioa lor dezakegu. Lehenik eta behin, nekez baiezta daitekeela uste dut 2. atalak aipatzen dituen «ekintza guztiak», Administrazio Zuzenbidearen esparruan, administrazio-egintzat, *estricto sensu* hartzen ditugunak direnik. Administrazio-egintzak, ulerkera estuan hartuta, 8. artikulua lehenez atalean jasota daude, erabaki ofizialen aipamena egiten duen pasartean hain zuzen ere. Funtsean, izatez, administrazio-egintzak erabaki ofizialak baitira. Hortaz, bigarren ataleko «ekintza guztiak» ezin daitezke administrazio-egintza arruntekin identifikatu; aitzitik, horiek aipatzen dituzenean herri-administrazioen beste jarduera-mota batzuei buruz ari da Legea.

Horrez gainera, bigarren atal honek erabilten duen esapideak berak ere —«parte hartzen duten ekintza guztietan»; gaztelaniaz, «todo acto (...) en que intervengan»— ez du bide ematen identifikazio hori ontzat hartzeko; Administrazioak ez baitu

administrazio-egintzetan «parte hartzen», horiek eman edota onetsi baino. Gaztelaniazko testuan ere beste horrenbeste gertatzen da, alegia, legegileak artikulua honetan administrazio-egintzei buruz aritzeko asmoa izan bazuen, ez zuen «intervengan» hori erabiliko, «dictar» edota horren antzeko beste aditzen bat baino.

Horiek guztiak kontuan hartuta, honako hau da, nire ustez, atal honen esangura, alegia, arau orokorrez eta erabaki ofizialez gainera, erakunde publikoek ikutzen duten orok elebiduna izan behar duela. Aginte publikoen presentzia eta parte hartzea gauzatzen den une bere-beretik, gertakaririk ahulena, jarduerarik txikiena eta garrantzirik gutxienekoa ere —idatzirik jartzen bada, bederen—, elebitara burutu behar dela.

Auzitegiek ere, gaur arte behintzat, oso hedapen zabala eman diote Euskararen Legearen 8.2. artikuluko «todo acto en el que intervengan» horri. Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1995eko abenduaren 30eko Epaian jasotzen denez, administrazioen barne-jarduera edo jarduera orokorra barneratzen du aipatu esapideak: “...presupuesto que el artículo 8.1 antes aludido se refiere a la actividad administrativa con transcendencia externa, el art. 8.2 se atiene a la actividad administrativa general...”. Adierazpen honen ildotik sakonduz, Auzitegiak, Legearen 8.2 artikuluko «erakunde publikoek parte hartzen duten ekintzen» artean kokatzen du bete-betean, inolako zalantza barik administrazio-barnekoa den kontu bat: udal-aurrekontuen egitasmoa<sup>18</sup>.

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak ere bide beretik jo du. Foru Erkidegoko Vascuencearen Legearen 11. artikulua, esku artean darabilgun EAEko Euskararen Legearen 8.2 artikulua kalkoa da, eta honek bezalaxe, elebitara idatzi beharko direla xedatzen du “...todos los actos en que intervengan los órganos de las Administraciones Públicas...”. Hori jakinik, Nafarroako Auzitegiak ere udalaren aktak —hau da, Administrazioaren barneko jarduerak— artikulua suposamendu faktikoan kokatzen ditu; hots, «actos» haien artean kokatzen ditu.

Ikusten denez, bada, Auzitegien aburuz, Euskararen Legearen 8.2 artikulua aginte publikoek parte hartzen duten egintza guztietarako ezartzen duen elebitasun-araua Administrazio-barneko jarduerari eta tramitaziozko egintzei ere aplikagarria zaie; besteak beste, udal-aurrekontuen egitasmoari eta udalen aktei. Eta horiei aplikatzen bazaie berdin antzekoa gertatuko da, logika hutsez, Administrazioaren baitan

18. Aitortu beharrekoa da dena den, Auzitegiak ez duela gai honen inguruan jarrera bakarra izan. 1994ko martxoaren 4ko Epaian, adibidez, Euskararen Legearen 8. artikulua 1 eta 2 atalak “...referibles en términos generales a las actuaciones municipales con transcendencia o eficacia «ad extra».

prestatzen diren beste egintza- edo arau-egitasmoekin eta barne-agiriekin.

Gauzak horrela izanik, ezinbestekoa egiten zaigu lehengo galdera iluntzetara egitea: Euskararen Legearen 8.2 artikulua hain luze-zabalera handikoa izanik, zeintzuk dira bere aplikazio-esparrutik kanpo dauden administrazioen jarduerak? Zeintzuk beraz, ez ditu lotzen artikulua hark ezartzen duen elebitasun simetrikoaren ereduak?

Nire ustez bi jarduera-mota salbuetsi daitezke elebitasunaren erregelatik. Bat, argi eta garbi, ahoz gauzatzen diren jarduerak; eta bestea, Administrazioaren barne-barneko jarduerak, zalantza askorekin.

Lehenik eta behin, ahoz gauzatzen direnak aipatuko ditugu. Araugintzako xedapenen eta erabaki ofizialen kasuan argi dago hori 8.1 artikulua argi esaten duelako bertan aipatzen diren jarduerak bi hizkuntzetan "...idatzita..." egon beharko dutela. Legegileak, hortaz, jarduera idatziak zituen buruan elebitasunaren-araua ezarri zuenean eta ahozkoak kanpoan utzi zituen. Gaztelaniazko testuan ere garden eta zoli ikusten da hori: "...deberán ir redactadas en forma bilingüe..." baitio artikulua. Idatzirik jartzen ez direnak, beraz, elebitasun simetrikoaren erregelatik kanpo daude. Xedapen orokorren eta erabaki ofizialen kasuan, dena den, salbuespen horrek oso garrantzi gutxi du xedapen orokorrak eta egintza administratiboak —Administrazio eta Prozeduraren Legearen 55-2 artikuluan jasoriko salbuespenak salbu— idatziz egin behar direlako.

Erakunde publikoek parte hartzen duten ekintzen kasuan ere gauza bera esan dezakegu, nahiz eta euskarazko bertsioan —"...bi hizkuntzetan egon beharko dute..."— ekintza horiek idatzirik burutu beharra hain argi agertu ez. Gaztelaniazkoak, ordea, argi eta garbi esaten du; ekintza horiek "...deberán ir redactadas en forma bilingüe...". Idazten ez direnei, bada, ez zaie xedapena aplikatzen.

Bigarrenez, Administrazioaren barne-barneko jarduerak aipa ditzakegu. Zeintzuk lirarteke hauek, kontuan hartzen bada 8.2 artikulua administrazioetako barne-jarduerak ere bete-betean sartzan dituela bere aplikazio-esparruan? Zaila da oso galdera honi erantzun zehatza ematea, baina, edonola ere, alda

honetan kokatuko nituzke Administrazioaren joan-etorrian hain garrantzi txikia dutenez gero Administrazioak berak parte hartzen duen ekintzetan hartu ezin daitezkeenak. Ikusi dugunez, administrazioen barne-jarduerak ere, auzitegien iritziz, Euskararen Legearen 8.2 artikuluko «aginte publikoek parte hartzen duten ekintzak» izan daitezke. Administrazioetik kanpora eraginik bat ere ez dutenak, ordea, barne-barnekoak, alegia, esparru horretatik kanpo utzi daitezke<sup>19</sup>.

Eta Legez ezarritako erabilera-arau elebidunetik kanpo dauden salbuepen bi hauetan, zein hizkuntza erabili behar da?

Herritarrek hasi eta bultzatutako prozeduretan, norbanakoak aukeratutako hizkuntza bilakatzen da nagusi. Erakundearen beraren kabuz hasten direnen kasuan, berriz —batez ere herritarrengana iritsi gabe organizazioaren baitan edota, gehien-gehienez administrazio ezberdinen artean agortzen diren horietan— ez dago erregela orokorrik eta, beraz, lekuan lekuko administrazioaren egitekoa da 8. artikulua xedapenak osatzea bere jardueraren hizkuntza-erregimena zehaztuz. Edonola ere, Euskararen Legearen 8. artikulua horren garapenari ekiterakoan, administrazioek oso esparru estua dutelakoan nago; artikulua haren suposamendu faktikoak, aztertu dugunez, zabaltasun itzela duelako; administrazioen jarduerarik gehien-gehienak barneratzen dituelako.

Esan beharrik ez dago, bere garaian aurrerapauso izugarria izan zen 8. artikuluko elebitasun-erregela hori, oztopo bilakatu dela gaur egunean, zenbait lekutan euskara bakarraren erabilera areagotzeko. Udal euskaldunek batik bat, baina ez eurek bakarrik, eragozpen astuna baitute aipaturiko artikuluan euskararen erabilera suspertzearen ildotik aurrera ekiteko. Solaskidearekiko harremanetan erabiliko den hizkuntza aldeaz aurretik hitzartu ezean, ezinezkoa baitzaie heritarrekin zein beste administrazioekin euskaraz bakarrik balio osoz aritzea. Eta hori, gainera, ez Konstituzioak eragozten dielako, baizik Euskararen Legeak berak, elebitasun simetrikoaz jardutea galdatzen dielako. Euskaraz bakarrik jarduteari dagokionez, bada, Konstituzioa bera baino estuagoa da Euskararen Legea.

19. Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Administrazioaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko 1998-2002 Planak, hala ere, ez du inolako bereizketarik egiten administrazio-barneko agiri edo dokumentuen artean, horien artean zeintzuk bete behar duten zehazteko elebitasun simetrikoaren erabilera-araua eta zeintzuk, aldiz, arau horren aplikazio-esparrutik kanpo gelditzen diren. Plan honen 6.2.1.3. puntuak, Lan-hizkuntzari buruzko jarraibideak zehazterakoan, honako hau dio: alegia, administrazioetako edozein ataleko dokumentazioa "...hizkuntza bakarrean sortuko..." dela, euskaraz edo gaztelaniaz. Halaber, administrazioetako atal elebidunetara bidali beharreko dokumentazioa, apurka-apurka, "...euskaraz sortu beharko..." dela xedatzen du jarraibide honek. Kontuan hartzen baldin bada jarraibide hauek ez dutela administrazio-barneko agiriaren artean bereizten, galdera da, zein neurritan ez ote duten urratzen Euskararen Legearen 8.2 artikulua elebitasun-erregela.

## “ Euskaraz bakarrik jarduteari dagokionez, Konstituzioa bera baino estuagoa da Euskararen Legea ”

Galizia eta Kataluniako udalek ez dute horrelako arazorik. Kataluniaren kasuan, adibidez, gaurkotasunik handieneko adibidea aipatzeagatik, 1998ko urtarrilaren 7ko Legearen 9. artikulua arabera, Autonomia Erkidego hartako udalek *“...deben utilizar el catalán en sus actuaciones internas y en la relación entre ellos...”*. Administrazio-prozeduretarako ere gauza bera arautzen du Lege berdinaren 10. artikulua: *“En los procedimientos administrativos tramitados por (...) las administraciones locales y las demás corporaciones de Cataluña debe utilizarse el catalán...”*. Are gehiago, Lege honen lehenbiziko azken xedapenak Autonomia Erkidego honetako toki-araubidearen Legearen 5. artikuluari honako eduki hau ematen dio: *“El catalán es la lengua propia de la Administración local de Cataluña y, por lo tanto, debe ser la lengua de uso normal y general de sus actividades.”*

Komeni zaigu, haatik, EAeko udalei ere babes juridiko zuzen eta egokia eskaintzea, hizkuntza eskubideak urratu gabe euren jarduera euskaraz burutu ahal dezaten. Ez gaztelania erabat baztertuz, baina, horrela nahi izanez gero, herritarrek eskatu ahala bakarrik erabiliz. Horrela egin ezean, han eta hemen dagoeneko sortuta dauden arazoak —gogora bedi, esate baterako, Eusko Jaurlaritzako Erakunde Harremanetako eta Toki Administrazio zuzendariak Bermeoko Udalak 1998ko martxoaren 30eko Osoko Bilkuran onetsitako Euskeraren Normalizaziorako Udarlordenantzaren kontra egin zuela, besteak beste, elebakartasun euskaldunaren alde ekiten zuelako— biderkatze-bidean jartzeko arriskua dugu.

Udal euskaldunen esparrutik at ere 8. artikulua horrek sortzen du arazorik, sortu ere. Administrazioari dagozkion jarduera gehientsuenak, kanporanzkoak zein barnekoak, elebitara burutu beharrak ematen duen lana kontuan hartuz —agiriak eta dokumentuak bi aldiz idatzi behar baitira, lehenago hizkuntza batean

eta gero bestean—, funtzionarioak errazenera jotzen du asko eta askotan: gaztelaniaz bakarrik idaztera, gehiengoak hizkuntza hori ulertzen duelako. Eta hori ere, jakina, euskararen kaltetan.

Azkenez esan dezagun, idazpuru honetan Euskararen Legearen 8. artikulua bakarrik aztertu badugu ere arazo berbera planteatzen duela Euskararen Legearen 13. artikulua. Honek ere, hurak bezalaxe, elebitasunaren araua ezartzen baitu Euskal Erkidegoko agintek erabiliko dituzten iragarki eta inprimaki ofizial guztietarako.

### 4.2.2. Administrazioan administrazioko erabilera planak eta horien ezintasunak

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18 c) artikulua arabera, administrazio orok bere erabilera-plana egin behar du eta dokumentu horretan, besteak beste honakoa jaso beharko du:

*“...zehatz-mehatz azalduko da euskara nola erabili eta tratatuko den ondorengo esparruetan: administratuekin eta gainerako erakundeekin izaten diren ahozko zein idatzizko harremanetan, jendaurreko ekitaldietan, argitalpen-arloetan, hizkuntza paisaian eta, oro har, aipatutako hizkuntz helburuak betetzeko erakunde bakoitzak ezartzen dituen gainerako jarduera-esparruetan...”*

Aurrerapauso nabarmena da, zalantzarik gabe, arau bidez Administrazio oro behartzea zenbait esparrutan *“...euskara nola erabili eta tratatuko den...”* zehaztera behartzea. Alde horretatik bete-betean aitortu behar zaio aipaturiko Dekretuari gaur arte baztertuta egon den erabileraren esparruari ere arreta eskaini izana. Horrek, ordea, ez du esan nahi transkribatu dugun atalean dena txalogarria eta erabat positiboa denik. Bada kezka sortzen duen arlorik ere. Administrazioei euskararen erabilera antolatuta eta bideratzea eskatzen —edo galdatzen— zaie artikulua horretan baina, zein izango da antolakuntza hori egingo duen tresna? Normalkuntza Plana. Eta... zein da horren izaera juridikoa eta eragin-indarra? Dekretuak ez du zehazten eta Administrazio Zuzenbidean barrena, Planak ez du beti izaera juridiko-positiboa. Muturreko kasuetan, hirigintza-planen kasuan adibidez, izaera juridikoa aitortzen zaie administrazioetako planei. Beste asko eta askotan, ordea, etorkizunean Administrazioak hartuko duen jokabidearen bideak marrazten dituzten egitarauak, gizartearekiko konpromiso politikoak, eta horien antzean balio juridiko zuzenik ez duten agiriak izan ohi dira.

Hori horrela izateak ondorioak ditu, noski, erabilera bideratzeko ezartzen diren jarraibideen benetako aplikazioa bermatzearen ikuspuntutik. Arau juridikoak aplikatu beharra baitago eta, bere kasuan, aplikarazi egin daitezke auzitegien eragin-indarrez baliatuz. Baina planen kasuan ez da beti hori gertatzen. Eta horrelakoetan, herritarrak eta funtzionarioak ez du modu eraginkorrik erabilera-planak betetzen ez direnean, Administrazioari bete ez duena bete eragiteko.

## 5. Azken iruzkina

Administrazio-barneko euskararen erabilerak badu arazorik, ikusi dugunez, indarrean dagoen Euskararen Legean. Arau nagusi honen zortzigarren artikulua 2. atala da, batez ere, arazoan iturria. Alde batetik, artikulua honek ez du lortu elebitasuna Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio guztietako jardura guztietara hedatzea —asko eta asko baitira oraindik gaztelaniaz bakarrik idazten diren administrazio-jarduerak—, baina bestetik, hesi gaindiezina ezarri die euskaraz soilik jardun nahi duten administrazio-atalei. Konstituzioaren arabera zilegi izan daitekeena —alegia, euskaraz bakarrik jardutea, beti, jakina, herritarren hizkuntza-errespetatuz—, berak oztopatzen baitie. Beste horrenbeste gertatzen da 13. artikulua ere. Horra hor bada, argi eta labur esanda, nire ustez, lan honetan aztergai dugun kuestioan gaur-gaurkoz Euskararen Legeak duen ahuleziarik nabarmenena.